

## Asier Altuna eta Lander Camareroren lanek irabazi dute Huhezinema 2014ko sail ofizialeko sari nagusiak

2014/03/29

Ostiralean, hilak 28, Aretxabaletako Arkupe aretoan egindako sari banaketa ekitaldian, Asier Altunak irabazi zuen Huhezinema 2014ko Goiena saria film labur onenari *Zela Trovke* lanarekin. Epaimahairen sari berezia, bestalde, Lander Camareroren *A political story*-k irabazi zuen. Ikasleen lehiaketako sariei dagokionez, Odei Esnaola, Ainhoa Garcia, Ander Larrañaga, Andrea Lopetegi eta Janire Zubizarretak irabazi zuten MU saria fikzio onenari *Anonymous* lanarekin eta Oihana Abrisketa, Amaiur Perez, Nora Vicente, Izar Usobiaga eta Andrea Venegasek, aldiz, MU saria dokumental onenari *Jo ta jarri* dokumentalarekin. Ikasle irabazle horiek guztiak MUko Ikus-entzunezko Komunikazioko ikasleak dira.

### Huhezinema 2014ko palmares osoa

#### Sail ofiziala

- **Goiena saria film labur onenari:** *Zela Trovke* (Asier Altuna).
- **Epaimahaiaren sari berezia:** *A political story* (Lander Camarero).
- **Vertigo saria:** *Alejandra* (Alberto Gastesi).
- **Ikusleen saria:** *Das Kind* (Manu Gomez).

#### IKASLEEN LEHIAKETA

- **MU saria fikzio onenari:** *Anonymous* (Odei Esnaola, Ainhoa Garcia, Ande Larrañaga, Andrea Lopetegi eta Janire Zubizarreta).
- **MU saria dokumental onenari:** *Jo ta jarri* (Oihana Abrisketa, Amaiur Perez, Nora Vicente, Izar Usobiaga eta Andrea Venegas).
- **Ikusleen saria:** *Jo ta jarri* (Oihana Abrisketa, Amaiur Perez, Nora Vicente, Izar Usobiaga eta Andrea Venegas).
- **Aipamen berezia:** *Positibatzea* (Amaia Badiola, Itsaso Etxebarria, Itsasne Bermudez, Maite Salaberria, Maria Aierbe)

#### BASQUE CULINARY center saria

- **Basque Culinary Saria:** *Betiko eran* (Julene Lopez).
- **Ikusleen saria:** *Tartare* (Andrea Lopetegi, Ainhoa Garcia, Amaia Badiola, Jone Albeniz).

Lehiaketaren eta sari banaketaren gaineko informazio gehiago:

- Goienan argitaratutako kronika eta argazki sorta.
- [www.huhezinema.com](http://www.huhezinema.com)



Huhezinema 2014ko irabazleak.